



Araba Euskaraz bertan da!

Laudio ikastolak 2021eko Araba Euskaraz eguneko egitaraua prest dauka eta bertan parte hartzeko izena eman beharko da.

Hilabetetako gorabeheren ondoren, Laudio Ikastolak, Arabako Ikastolen Federazioarekin eta Euskal Herriko Ikastolen Elkartearekin hartutako erronkari eutsita, "Zabal bideak" lelopean Araba Euskaraz egunerako programa anitza aurkeztu du.

"Bizi dugun osasun egoeraren ondorioz etorkizunerako espektatibatan nagusitu den ezjakintasuna uxatu eta eraldatzera goaz orain arte jai egun erraldoi baten inguruan abiatzen genuen ekimena. Egoerara egokitutako eguna antolatu dugu, berrasmatu beharra nagusitu da antolakuntzan." adierazi du Aiara Murga Egiak, Laudio Ikastolako lehendakariak.

Edonola ere, "Araba Euskaraz ekimenak garrantzitsua izaten jarraitzen du Arabako ikastolen hezkuntza proiektuak garatu ahal izateko, eta are gehiago pandemiak horrenbeste kaltetu dituen euskara eta euskal kulturari bidea (ber)zabaltzeko", nabarmendu du Jon Bengoetxea Martinezek, Ikastolako zuzendariak.

Erronka bikoitza dute aurrean. Batetik Laudio Ikastolaren hezkuntza proiektua ezagutaraztea eta hauspotzea. Bestetik, berrasmatu eta egun bizi dugun egoerara egokitu behar izan duten Araba Euskaraz eguna bera biziberritu eta indartzea, kasu honetan, ikastolako komunitatearen eta herriko elkarten eta erakundeen arteko harremanak sakonduz.





Jakin badakite oraingo egoerak ahalegin eta baliabide gehiago eragin dituela, osasun neurriak betearazteko eta horregatik, bertaratzen direnei modu arduratsuan jokatzeko eskaera nagusitu dute. Bi gune handitan banatuko da aurtengo Araba Euskaraz eguna eta bertan antolatu diren ekimenetan parte hartzeko, parte hartzaileen osasuna eta segurtasuna ahalik eta gehien zaintze aldera, aldez aurretik izena eman beharko da Araba Euskaraz web gunean.

“Aurtengo Araba Euskaraz ekimena ez da egun bakarrera mugatu, hainbat dira ikasturtean zehar burututako jarduerak, eta ekainaren 20an, jarduera sorta horri itxiera emango diogu ibilbiderik eta kontzertu erraldoirik izango ez duen programa batekin. Hala ere, lan taldeetan, auzolanean eta herriko eragileekin elkarlanean, irudimenaz eta ilusioz, bi gune nagusi prestatu ditugu, batetik, parte hartze zuzena eta aktiboa eskatzen duten jarduerekin eta bestetik, ikusi edota entzunez gozatzeko ikuskizunekin” azaldu du Aiarak.

Elkarlanari, ilusioari, kulturari, auzolanari, aniztasunari, parte hartzeari, euskarari, parekidetasunari... bidea zabaldu nahi izan diote euskararen aldeko programa oparo honen bitartez. Adin guztietarako pentsatutako egitaraua prestatu dute, baina bereziki familian gozatzeko eguna izango da eta edukiera mugatua izango du proposatu diren bi gune handi horietan:

1) Euskararen plaza (herrigunea):

*Herriko plaza (edukiera: 114)

-10:00etan irekiera ekitaldia. Ohi bezala, instituzioetako eta gizarte eragileetako ordezkariak izango dira bertan.

-11:00 eta 13:00etan Eidabe taldearen “Gora kasete” ikuskizuna, EDPren eskutik.

-16:00etan dantza emanaldia Laudioako Akelarre, Itxarkundia eta





Untzueta dantza taldeen eskutik.

-17:30ean zunba tailerra eskualdeko Izaskun del Cerroren gidaritzapean. Saio honetan Araba Euskaraz kantaren koreografia dantzatzeko aukera egongo da.

*Aldai plaza (edukiera: 120)

-11:00 eta 13:00etan “3 kluba, Go!azen” kontzertua EITBren eskutik.

-17:30ean “Maiden Zabalegi” kontzertu akustikoa

2) Euskararen basoa (parkea):

*Kultura etxeko lorategia (edukiera: 75)

-11:00 eta 13:00etan tailerrak eta jolasak. Bertan herriko Kirikino Aisialdi taldeak eta Aiaraldeko Kokoriko hezkuntza faktoriak tailerrak zein jolasgunea eskaintzeaz gain, Eroskik sukaldaritza ikastaroa eskainiko du.

*Kasinoa

-11:00, 12:00 eta 13:00etan ihes gela (edukiera: 18)

-16:00etan karaokea (edukiera: 40)

*Pergola (edukiera: 100)

-11:00, 12:00 eta 13:00etan “Kaiku: *elikagaien taupadak*” antzerkia Kaikuren eskutik.

-16:00etan bertso saioa Audio eta Arabako bertsolariekin; Izar Mendiguren, Manu Bendala eta Iñaki Viñaspre bertsolariak eta Ainhoa Comas gai-jartzailea.

-17:30ean “Ene bada! Aiama eta Ane Guria” musika emanaldia.

*Lamuza frontoia

-Goizeko 10:00etatik aurrera, Arabako herriarteko eskupilota txapelketako finalak jokatuko dira Pilota Federazio eta Audioko Herriaren pilota elkartearen eskutik (egun indarrean dauden neurriak kontuan hartuta, ikuslerik gabe).

-16:00etan Dekatloia, euskal kulturaren sustraituta dauden euskal joko eta kirolez osatutako topaketa ludikoa.





Aipatutako ekintza horiez gain, bertako ekoizleei ere bidea zabaldu nahi izan diete eta 41 postuz osatutako **azoka** ipiniko dute Laudioko institutuko jolastokian. Azoka ikusi nahi dutenek ez dute alde zuzenik izango.

Modu berean, ikastolako familiek zein langileek egindako ekarpenekin eta herriko merkatarik zein ostalariek eskainitako laguntzarekin **tonbola** osatuko dute eta Lamuza plazan egongo da. Bertatik pasatzen den orok saria jasoko du euskara babestearen truke.

Azkenik, eta abendutik irekita dagoena, Araba Euskaraz **denda** ere egongo da zabalik, Araba euskaraz jantzi dezagun. Bertan eskuragarri izango da kanpaina honetarako ekoiztu eta diseinatutako guztia; kamisetak, botilak, izerditakoak, kirol kamisetak, motxilak... .

“Hilabete hauetan guztietan gauzatu izan ditugun ekintzen garapenean zein egunaren antolakuntzan aritu izan diren eta lagunduko duten hezkuntza komunitateko kideak, herriko eragileak eta erakundeak eskertu nahi ditugu” aitortza eta eskertza egin du Bengoetxea zuzendariak.

Liher Larrea Ibabek, Arabako Ikastolen Elkarteko lehendakariak, Laudio Ikastolak hartutako erronka eta, oztopoak-oztopo, egindakoa txalotu nahi izan du. *“Aurten ezingo gara nahi beste euskaltzale elkartu, baina ziur, bertaratutakoek egun polita pasatuko dutela. Hogei egun falta dira, eta oraindik gehiegi aurreratu ezin dugun arren, datozen urteetarako Araba Euskaraz nolakoa izatea nahi dugun ere prestatzen gabiltza. Baina, aurtengoa eredugarri bihurtu eta borobil dezagun lehendabizi eta tantaz tanta etorriko dira hurrengoak”* indarra aurtengo topaketan eta begirada etorkizunean jarritz bukatu du Liherrek.





Araba Euskaraz prest!

Laudio Ikastola tiene preparado el programa del Araba Euskaraz y para participar en el mismo será necesario inscribirse previamente.

Tras la inseguridad de estos últimos meses, Laudio Ikastola, con la Federación de Ikastolas de Araba y la Asociación de Ikastolas de Euskal Herria, ha presentado bajo el lema “Zabal bideak” un programa diverso para el día de Araba Euskaraz.

“Como consecuencia de la situación de salud que vivimos, ha estado presente la inseguridad, la duda, pero hemos organizado una jornada adaptada a la situación donde ha primado la necesidad de reinventarse y adaptarse”, ha señalado Aiara Murga Egia, presidenta de Laudio Ikastola.

En cualquier caso, *“Araba Euskaraz sigue siendo importante para el desarrollo de los proyectos educativos de las ikastolas alavesas, y más aún para el euskara y la cultura vasca, tan perjudicadas por la pandemia”,* ha destacado Jon Bengoetxea Martínez, director de la Ikastola.

Se enfrentan a un doble reto. Por un lado, dar a conocer y fortalecer el proyecto educativo de Laudio Ikastola. Por otro lado, revitalizar y reforzar el día de Araba Euskaraz, que ha tenido que reinventarse y adaptarse a la situación que vivimos, profundizando en este caso en las relaciones entre la comunidad educativa, las asociaciones y entidades locales.





Son conscientes de que la situación actual ha supuesto más esfuerzos y recursos para garantizar las medidas sanitarias, por lo que han pedido a quienes asistan actúen de forma responsable. El día de Araba Euskaraz de este año se dividirá en dos grandes espacios y para poder participar en las diferentes actividades que se han organizado, con el objetivo de velar por la máxima salud y seguridad de quienes participen, será necesario hacer inscripción previa en la página web de Araba Euskaraz.

“La iniciativa Araba Euskaraz de este año no se ha limitado a un día, son varias las actividades que se han llevado a cabo a lo largo del curso, y el 20 de junio vamos a cerrar este conjunto de actividades con una jornada que no tendrá recorrido ni conciertos *masivos*. *Sin embargo, con ilusión, en grupos de trabajo, en auzolan y en colaboración con los agentes del pueblo, hemos preparado dos espacios principales, que reúnen, por un lado, actividades que requieren una participación directa y activa y, por otro, espectáculos donde poder disfrutar*”, ha explicado Aiara.

A través del programa elaborado han querido abrir camino a la colaboración, a la ilusión, a la cultura, al auzolan, a la diversidad, a la participación, al euskera, a la igualdad... . Esta jornada, que se alargará durante todo el día, tendrá una capacidad limitada, en cuanto a aforo se refiere, en los dos grandes espacios propuestos:

1) Euskararen plaza (casco urbano):

*Herriko Plaza (aforo:114)

-10:00, Acto de apertura. Como viene siendo habitual, asistirán representantes de instituciones y agentes sociales.

-11:00 y 13:00 Espectáculo del grupo Eidabe “Gora kasete” de la mano de EDP.

-A las 16:00 Actuación de danza a cargo de los grupos de danza Akelarre, Itxarkundia y Untzueta de Laudio.





-A las 17:30 Taller de zumba dirigido por Izaskun del Cerro. Durante la sesión también se bailará la coreografía de Araba Euskaraz.

*Plaza Aldai (aforo: 120)

-11:00 y 13:00 Concierto “3 kluba, Golazen” a cargo de EITB.

-17:30 Concierto acústico “Maider Zabalegi”

2) Euskararen basoa (parque):

*Jardín de la casa de cultura (aforo: 75)

-11:00 y 13:00 talleres y juegos. Además de ofrecer talleres y un espacio de juegos, a cargo de Kokoriko y del grupo de tiempo libre Kirikino, ofrecerán un curso de cocina a cargo de Eroski.

*Casino

-Sala de escape a las 11:00, 12:00 y 13:00 (aforo: 18)

-16:00 Karaoke (aforo: 40)

*Pérgola (aforo: 100)

-11:00, 12:00 y 13:00 teatro “Kaiku: elikagaien taupadak” de la mano de Kaiku.

-A las 16:00 sesión de bertsos guiado por Ainhoa Comas, donde cantarán bertsolaris de Laudio y Araba; Izar Mendiguren, Manu Bendala e Iñaki Viñaspre.

-A las 17:30 Actuación musical “ Ene bada! Aiama y Ane Guria”

*Frontón de Lamuza

-A partir de las 10:00 de la mañana se disputarán las finales del





Campeonato Interpueblos de Araba de Pelota de la mano de la Federación de Pelota y la Asociación de Pelota Local Herriaren (teniendo en cuenta las medidas sanitarias vigentes, sin público).

-A las 16:00 Dekatloia, encuentro lúdico de juegos y deporte rural vasco.

Además de las acciones mencionadas, se ha querido abrir camino a los y las productoras locales y se va a instalar una **feria** de 41 puestos en el patio del instituto de Laudio. Las personas interesadas en visitar la feria no tendrán que inscribirse previamente.

Así mismo, con las aportaciones de la comunidad educativa y con la colaboración de comercio y hostelería local, montarán una **tómbola** que estará en la plaza Lamuza. Quien pase por allí recibirá un premio a cambio de apoyar el euskera.

Por último, la **tienda** Araba Euskaraz también estará abierta para que Laudio se vista de euskera. Aquí podremos encontrar todo lo diseñado para esta campaña; camisetas, botellas, sudaderas, camisetas deportivas, mochilas... .

“Queremos agradecer a la comunidad educativa, a los agentes locales y a las entidades que han participado en la elaboración del programa, que trabajarán en la organización del día y que han colaborado en el desarrollo de las acciones que hemos llevado a cabo durante todos estos meses”, ha subrayado el director Bengoetxea.

Liher Larrea Ibabe, presidente de la Federación de Ikastolas de Araba, ha querido agradecer el compromiso de Laudio Ikastola por coger la responsabilidad de organizar el Araba Euskaraz a pesar de la situación actual. *“Este año no podremos reunirnos tantas euskaltzales como queramos, pero seguro que quienes acudan pasarán un buen día. Faltan veinte días, y aunque todavía no podemos avanzar demasiado, también estamos preparando cómo queremos que sea*





Araba Euskaraz los próximos años. Pero ahora toca cerrar y disfrutar de la jornada de este año” con la mirada en el futuro, sin olvidar la cita del próximo 20 de junio, ha concluido Liher.

